



PUBLICIDAD

## GIPUZKOA

[GIPUZKOA](#) | [BURUNTZALDEA](#) | [ANDOAIN](#) | [HERNANI](#) | [LASARTE-ORIA](#)

PUBLICIDAD

# Astigarragako inguruetakoko isilpekoak aurkitzeko aukerarik onena

'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketa  
Urumea ibaiaren eta bertako sagardotegien  
sekretuak ezagutzeko irekiko da ostiral  
honetan

 EL DIARIO VASCO **ASTIGARRAGA**
 @diariovasco

14 septiembre 2016

12:47

'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketa ostiral honetatik datorren igandera, irailak 25, ikusi ahal izango da Astigarragako Sagardoetxea museoan, Usurbilen eta Hernanin ikusgai egon ostean. Erakusketaren inaugurazioa ostiral honetan egingo da, 19:00etan, Lourdes Odriozola Sagardoetxeko historialariak gidatuko duen bisitarekin. Irekierarekin

Este sitio web utiliza cookies propias y de terceros para optimizar tu navegación, adaptarse a tus preferencias y realizar labores analíticas. Al continuar navegando aceptas nuestra Política de Cookies.

ACEPTAR

duen ekimenaren bitartez parte-hartzaileek bertatik bertara ezagutu ahal izango dituzte erakusketan azaltzen diren hainbat xehetasun eta bitxikeria.

Ekintza mordoa egongo dira asteburu honetan.

Larunbat honetan, 15:30ean, Arraun Lagunak klubak Donostiako Martutene auzoan duen ontziralekutik abiatuko da arraunlari taldea, Gondolin Kluba stand up paddle eskolako begiraleek lagunduta. Ibilbidean zehar, Lourdes Odriozola historialaria ibai honen iraganari buruz arituko da, Urumeak sagardoarekin duen harremana eta beste sekretu batzuk urgaineratuko dituen bisita gidatuan.

Arraunlari taldea 17:30ak aldera Ergobiako zubira ailegatzea aurrikusten da, bi ordu beranduago. Iritsitakoan, parte-hartzaileek Astigarragako auzo honetan XX. mendean zeuden sagardotegiak ezagutuko dituzte, sagardo eta pintxo dastaketa batekin amaituko den musikaz lagundutako bisita gidatuan.

PUBLICIDAD



Ostiraletik aurrera Sagardoetxean irekita egongo den 'Sagardo ibaiak, bizitza iturri' erakusketak Urumea eta Oria ibaien inguruko ikerketak ditu ardatz. Ibaiok sagardoaren inguruko sekretu ugari gordetzen dituzte, eta bi bailaretako bizilagunen komunikazioaren eta harreman ekonomikoen artikulazioa ahalbidetu zuten.

Gipuzkoak aintzinaroan izan zituen bizitza iturri nagusienetakoak izan ziren, eta inguruko bizilagunentzako aberastasunaren jatorri. Garai jakin batzuetan teknologia zentro aurreratuak izatera ere iritsi ziren. Gainera, Urumea eta Oriaren ur-bazterrak denetariko istorioen lekuko izan dira, hala nola, XVIII. mendeko langileen greba bat, Ergobian ordaindu behar zen bidesaria, itsasoko lanei lotutako langileen soldataren zati bat sagardoarekin ordaintzen zenekoa, Astigarragako alkate bizargina eta Murgiako Jaunen haserre, Ignacio Soroakoa Usurbilgo ainguragile ezagunaren amodio-aferak...

Erakusketa irailaren 25a arte egongo da ikusgai Sagardoetxean. Egun horretan, XVI. Sagar Uzta 2016 ospatuko da Astigarragan. Bien bitartean, astelehenetik ostiralera 11:00atik 13:30era eta 16:30etik 19:30era bisitatu ahal izango da, eta igandeetan 11:00atik 13:30era. Hernanin eta Usurbilen egin bezala, ikastolentzako eta taldeentzako doako bisita gidatuak izango dira, alde zurretik adostutako egun eta ordutegian.

**TEMAS** euskera

**TAGS**astigarragako,inguruetak,asilpekoak,aurkitzeko,aukerarik,onena

Deja tu comentario

PUBLICIDAD

## NOTICIAS RELACIONADAS

Gipuzkoako  
zinema indartzeko  
diru-laguntza

Merkatuen  
boterea  
hausnartzen duen  
esposizioa

Euskaltegietan  
matrikulatzeko  
epea irekita dago

Txakurrek  
bakarrik entzun  
dezaketek musika



## CIRCUITOS CULTURALES EN AUTOCAR

CIRCUITOS CULTURALES EN AUTOCAR PRIMAVERA 2016

### LO MÁS

TOP

| VISTO | COMENTADO                                                                             | COMPARTIDO |
|-------|---------------------------------------------------------------------------------------|------------|
| 1     | Dos fallecidos, uno de ellos de Tolosa, en un accidente de tráfico en la A-1 en Álava |            |
| 2     | Encuentran en Legazpi el cuerpo de la mujer desaparecida en Urretxu                   |            |
| 3     | Hallado en un pantano de Guipuzcoa el cadáver de una mujer desaparecida               |            |
| 4     | «No soy un enfermo, no puedo arrepentirme de unos abusos que no cometí»               |            |
| 5     | La mujer que estranguló a su nieta en Erreterria se enfrenta a 30 años de condena     |            |
| 6     | La hija de Rociño carga contra su madre                                               |            |
| 7     | Gipuzkoa incorpora un nuevo plan de ahorro para                                       |            |

PUBLICIDAD

PUBLICIDAD

EL DIARIO VASCO

vocento

DIARIOVASCO.COM Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.

EN CUALQUIER CASO TODOS LOS DERECHOS RESERVADOS:

ABC.es  
ABCdeSevilla

El Norte de Castilla  
DiarioVasco.com

Las Provincias  
El Diario Montañés

Registro Mercantil de Gipuzkoa, Libro de Sociedades 49, Folio 118, Hoja nº 2.900, Inscripción 1ª C.I.F.: A-20004073 Domicilio social en Camino de Portuetxe, 2 San Sebastián 20018.Correo electrónico de contacto [contactanos@diariovasco.com](mailto:contactanos@diariovasco.com)

Copyright © Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A. Incluye contenidos de la empresa citada, del medio El Diario Vasco (Sociedad Vascongada de Publicaciones, S.A.) , y, en su caso, de otras empresas del grupo de la empresa o de terceros.

Queda prohibida la reproducción, distribución, puesta a disposición, comunicación pública y utilización total o parcial, de los contenidos de esta web, en cualquier forma o modalidad, sin previa, expresa y escrita autorización, incluyendo, en particular, su mera reproducción y/o puesta a disposición como resúmenes, reseñas o revistas de prensa con fines comerciales o directa o indirectamente lucrativos, a la que se manifiesta oposición expresa.

|              |               |                 |
|--------------|---------------|-----------------|
| Hoy Digital  | Elcomercio.es | La Voz Digital  |
| El Correo    | Ideal digital | Laverdad.es     |
| La Rioja.com | SUR.es        | Leonoticias.com |
|              |               |                 |
| Clasificados | Finanzas      | Mujerhoy        |
| Infoempleo   | Autocasión    | Pisos.com       |
| Formación    | 11870.com     | FS Gamer        |